

Balio proposamena

Gure negozio – ideia, armairu digital bat da. Honetan, gure artean dagoen arazo ohiko bat asetuko dugu, gaur egun, gero eta pertsona gehiago dira arropa aukeratzeko arazoak dutenak. Gainera, arropa aukeratzeko estresa izateaz gain, denbora asko galtzen da, bereziki goizean. Armairu honek tablet bat dauka zeinek bi funtzio ditu. Batetik, aplikazio bat dago zure arropa eskaneatuta duena, eta horren arabera zure arropa kontuan harturik zure gustukoa izan litzatekeen outfit batzuk proposatzen dizkizu. Horretaz aparte, zure beharrak ere aintzat hartzen ditu(egun horretan zer egin edo nora joango zaren arabera, eguraldiaren arabera...). Tableta duen beste funtzioa, Bonnted izena du. Aplikazio hau, zure eskaneatutako arropa saltzen datza. Hau da, orain dela asko erabiltzen ez dituzun jantziak saltzeko helburua izanez gero, aukera ematen dizu zuzenean aplikazioan saltzeko, aplikazioa zure arropa duelako jada. Oso erabilgarria dela esan dezakegu, txikiak dituzun arropak edo online erositako arropa, gustuko ez baduzu saldu dezakezulako.

Gure armairuak alde batetik, balio proposamen kuantitatiboak ditu, bezeroak arropa aukeratzeko behar duen denboraren parte handi bat aurreztu dezakeelako. Armairu honi esker ere arropa gehiago erabiltzen da, eta gainera erabiltzen ez diren jantziak zuzenean saldu daitezke tabletaren bidez, Bonntedi esker, dirua lortuz. Bestetik, balio proposamen kualitatiboak nabarmenak dira, gure armairuak erosotasuna eskaintzen du, arropa guztia modu antolatuan eta digitalizatuan duenez, diseinu modernoa eta berritzailea du, eta mekanismo bati esker pertsona bakoitzaren gustuen araberako look pertsonalizatuak sortzen ditu. Horrez gain, jasangarritasuna sustatzen dugu arropa alferrik galtzea murriztuz eta jantzi zaharrei bigarren bizitza emanez.